



## MATEMATIKAKO GRADUA

### Irakaskuntza-baliabideak

Eskola magistralak, ikasgelako praktikak, mintegiak eta ordenagailuko praktikak emateko, Fakultatean eskuragarri izango dituzu:

- **56** irakaskuntza-gela: irakasle-mahaiko ordenagailuaz, kainoiaz, pantailaz, gardenkientzako eretroproiektoreaz eta arbelaz hornituak.
- **9** informatika-gela: kainoiaz, pantailaz, arbelaz eta ordenagailuz (21-40 bitarte, gelaren arabera) hornituak. Irakasleek irakasgaia aurrera eraman eta ikasleek eskatzen zaizkien praktikak egin ahal izateko, ekipo informatikoetan beharrezko softwarea instalatuta dago (Office, Mathematica, SPSS, R, Matlab, C++, ...).

Fakultatean honako hauek ere aurkituko dituzu:

- Ikasteko guneak, lehenengo solairuko hall nagusian eta 0.14 eta 2.12 geletan.
- Talde-lanak egiteko 2 mintegi (A5.P1.1 eta A5.P1.2 geletan, A eraikineko lehen solairuan).
- Informatika-gela bat, zentroko ikasle guztiek erabili ahal izango dutena.

[Lotura](#) honetan, zentroko gela eta zerbitzuei buruzko xehetasun gehiago aurkituko dituzu.

Bestalde, ikasleek EHU/UPVko Bizkaiko campuseko [liburutegi](#) nagusia (Fakultatearen parean dagoena) erabili ahal izango dute:

- Liburu zientifikoak, egin beharreko irakasgaien bibliografia barne hartzen dutenak, maileguan hartzeko aukera.
- Hemerrotekarako sarbidea, aldizkari zientifikoek funts zabala kontsultatu ahal izateko.
- Ikasteko gelak erabiltzeko aukera.

Gainera, Matematika Sailak dibulgazioko matematika-liburuen eta logika-problemen bilduma bat du, eta interesa duen edonork erabil dezake.

<https://egelapi.ehu.eus/course/view.php?id=446>

Esteka horretan, eskuragarri dauden liburuen zerrenda kontsulta daiteke, eta horiek maileguan hartzeko eskaera nola egin behar den ere azaltzen da.

Gainera, zentroko irakasleek [UPV/EHUko OCW proiektuan](#) kolaboratu dute, eta ematen dituzten irakasgaiei lotutako materiala eskuragarri jarri dute.

Azkenik, irakasgai askotan, [eGela](#) izeneko ikasgela birtuala erabiltzen da irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Bertan, irakasleek onlineko material ugari jartzen dituzte ikasleen eskura, ikaskuntza aktiboa sustatzeko asmoz: apunteak, ariketa eta problemak, egin beharreko jarduerak,...